

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Ama izatea

Onintza Enbeita euskaragara.net

Bertsolaria

Ama izatea mitifikatuta dagoela iruditzen zait. Obsesio baten antzera bizi ditut amari egindako kantuak, ipuinak, bertsoak... Batzuetan ematen dugun amaren irudia sakrifizioarena da, eta benetan esaten dizuete, hainbesterako sakrifizioa bada ama izatea, nik ez dut ama izan nahi. Bestetan, badirudi umeak derrigor behar duela ama bizitzeko. Bizitzak ematen dituen palukadekin, badakigu asko hazi eta hezi direla amarik gabe. Ama izatea eta ama bat izatea gauza ederra dira, dudarik gabe. Gogorra egiten zait ama izan nahian dabilzan lagunen etsipena entzutea, eta oraindik gogorragoa, ama behar baino lehen galdu zutenekin gure amaz hitz egitea. Erditzea emakumeoi tokatu zaigun pribilegioa da, eta pozik nago; nahi badut, neuk ere ama izateko aukera izango dut. Amak eman zidan bularra, eta haren zilbor hesteari lotuta jaio nintzen; baina horrek ez du esan gura bizitza guztian amak aitak baino hobeto ulertuko gaituenik. Nik gauzak okertzen direnean behar dudana altzoa aitarena da. Kontsolatzen nauen presentzia isila aitarena da, eta, askotan, amari, maitasun handiz, zela jarriko nioke ezpain itxien gainean. Eta ez naiz horregatik gaizki sentitzen, eta badakit, hori hala izanda ere, biak maite ditudala. Ez bat bestea baino gehiago: biak berdin, biak asko.

Berria

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Onintza Enbeitak?
- Zer ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Zure ustez ere amatasuna mitifikatuta dago? Zergatik?
- Zein izan daitezke ondorioak? Zer egin daiteke?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Antibiotikoen erabilera desegokia



Antibiotiko jakin batzuekiko erresistentziak asko gehitu dira azken hamar urteotan Europan. Gurea da erresistentzia-kasurik gehien detektatzen dituen herrialdeetako bat, bai antibiotiko gehiegi kontsumitzen direlako, bai haien erabilera axolagabearen eraginez. Erabilera desegoki horren ondorioak ikaragarriak izan daitezke infekzio larri baten aurrean.

Zein da panorama ilun horri aurre egiteko bidea? Herritarrek, eta batez osasungintzako profesionalek arazoaz kontzientzia hartzea. Izan ere, antibiotikoak desegoki erabiliz gero, ospitaleko egonaldia luzatzearekin batera asistentzia-gastuak ikaragarri igotzen dira. Horrez gain, erresistentziak tratamendu antibiotiko egokiaren atzerapena dakar.

Noiz eta nola hartu antibiotikoak?

Gauza jakina da antibiotikoak bakterioek sortutako infekzioetan soilik direla eraginkorrak. Hala ere, gu gara Europako herrialde guztien artean era horretako osasun-arazo ez hain larrien aurrean, medikuaren errezetarik gabe antibiotiko gehien hartzen dugunak. Eta erabilera desegoki horrek bakterioak erresistente bihur ditzake. Ondorioz, hurrengo batean antibiotikoa eman ez gero, gerta daiteke alferrikakoa izatea. Horregatik, antibiotikoak errezetatzeak profesional sanitario baten arduraren eskusiboa izan beharko luke, eta ez gaixoak hartutako erabakia. Horrekin batera tratamendua amaitu ostean, soberan geratutako botikak ez gordetzea gomendatzen da. Adituen iragarpenak beldurgarri samarrak dira: antibiotikoekiko erresistentziak egungo erritmoan hazten jarraituz gero, berandu baino lehen ez da gaixotasun jakin batzuentzat botika eraginkorrik egongo.

Informazio-iturria: www.argia.eus webgunea. Testu laburtua.

Gaia prestatzeko:

Zein dira testuan ageri diren datu edota ideia nagusiak? euskaragara.net
Zuk zein ideia azpimarratuko zenituzke?

Eman gaiari buruzko iritzia:

- Badakazu antibiotikoak kontsumitzeko ohiturarik?. Zein kasutan kontsumitzen dituzu?
- Gaur egun, antibiotikoak gehiegi eta desegoki kontsumitzen ditugula uste duzu?
- Zein dira automedikazioaren ondorioz kaltegarrienak, zure ustez?
- Kontsumitzaileok zer egin behar genuke antibiotikoak egoki erabiltzeko?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

euskaragara.net

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)

2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

BANKUAREKIKO KONTRATUA BETE EZEAN, DESJABETZEA?	
<p>2008tik, krisia hasi zenetik, 2012ko ekaina arte, Hego Euskal Herrian 10.997 etxegabetze izan dira, batez beste egunean 17. Bere garaian bankuek oso pozik emandako kredituei ezin aurre eginik daude familia ugari. Zorra ordaindu nahi dute eta moratoria eskatzen dute, edo sikiera kreditua kitatu ahal izatea etxebizitza emanda. Eta bankuak izaten ari diren tratua bera nahi dute. Finantza erakunde askok hondoa jo eta atea itxi beharko lituzkete, baina Estatuak ez die erortzen utzi eta milaka milioi euro eman dizkie, zergadunen dirua, alegia.</p>	<p>Larrialdiari erantzuteko elkartasuna bide eraginkorra izaten ari da. Zeregin horretan <i>STOP Deshaucios</i> ekimena adin eta joera ezberdinen topaleku bilakatu da. Denek ere bere ahalegintxoarekin gizarte mailako arazo larri horri aurre egin nahi diote.</p> <p>Kideen artean gazte jendea dago, eta baita jubilatuak ere. Bulego lanak eginez, abokatu lanak, komunikazioari dagozkionak... Desjabetzeen aurka, sektore ezberdinetako jendea biltzen ari da, bakoitza bere mailan eta neurrian laguntzeko prest.</p>
ARREGI, Juan Mari , argia.eus	www.aiurri.com

- Zer azpimarratuko zenuke Arregiren hitzetatik?
- Askok gerrikoa estutu eta sakrifizio handiak egin behar izan ditu hipotekaren zorra kitatzeko. Zure ustez, bidezkoa al da, orain, ordaindu ez dutenei baldintzak erraztea? Arrazoitu.
- www.aiurri.com atariko testuan aipatzen den elkartasun edo laguntza horretaz zer iritzi duzu? Beste laguntza motaren bat beharko ote luke etxea galtzear dagoenak? Zein?
- Egoera larrietan pizten da gizakiaren alderdi solidarioena. Zergatik izan litekeela uste duzu?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Bidaia zapatillak jantzita

Iker Tubia, berria.eus

Korrika egitea modan dago. Eta, hori hala izanda, lasterketetan parte hartzeko ohitura ere zabaldu egin da. Han eta hemen, hiri nagusi gehienek dute maratoi bat. Parte hartzaile asko, baina, ez dira korrika egitearekin konformatzen, eta turismoa egiteko aprobetxatzen dute bidaia. Bide horretan, badira dortsala, bidaia, lo egiteko tokia eta turismo jarduerak eskaintzen dituenik; baita hiriak korrika ezagutzeko egitasmoak antolatu dituenik ere.

Bost dira maratoi nagusiak munduan: New York, Boston, Chicago, Berlin, Londres eta Tokio. Turismoaren ikuspegitik, baina, badira hain sonatuak ez izan arren garrantzitsuak direnak. Cesar Irigoienek ongi daki zer den lasterketak eta turismoa uztartzea. Izan ere, berak askotan egin du hori, eta, gainera, Corriendo por el Mundo bidaia agentziako zuzendaria da. Nagusiki, bi gauza eskaintzen dituzte: Nafarroa korrika eginez bisitatzeko ibilbideak eta lasterketetara joateko bidaiak. Gainera, lasterketak antolatzen dituzte batzuetan.

«Nik zapatillak eramaten ditut bidaiatzen dudan guzietan», onartu du. «Tokiak korrika eginez bisitatzeko gustatzen zait; turista itxura ez izateko modua da». Oihana Kortazar mendi korrikalariak ere bi jardueren uztarketa nabaritu du: «Korrika egitea modan dago; beraz, jendea konturatu da posible dela biak egitea». Bera, baina, ez da denbora luzez geratzen, tokia ez badago oso urruti. «Joaten naizen lekuetara joatea eta hori ikustea bera turismoa egitea da niretzat». Dioenez, Euskal Herrira datozen korrikalarien artean ohikoa da aditza gastronomia edo tokiren bat ezagutzera joan direla.

euskaragara.net

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Iker Tubiak?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Bioerregaien argi-ilunak



Bioerregaiak argudio argi bat dute alde: gutxiago kutsatzen dute. FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera, gaur egun mundu zabalean 854 milioi lagun gose dira, ez dute egunerokoan behar adina elikagai. Bioerregaien gaineko politikak ez badira taxuz atontzen, egoerak okerrera egin dezakeela ohartarazi dute. Uztak bioerregaien ekoizpenera bideratzen badira eta prezioek gora egiten badute, gutxien dutenek oraindik ere gutxiago izateko arriskua dute.

Bioerregaien ekoizpenerako uztak tokian tokiko ekosistemak ondo aztertuta hautatu behar dira. Horrela egiten ez bada, ekosistemak desoreka daitezke eta, epe luzera, ondorio larriak eragin ditzake.

Egun nekazaritzarako erabiltzen ez diren lur eremuak nekazaritzara bideratzea ekarriko du gero eta bioerregai gehiago ekoizteak. Baina aitzakia horrekin basoak soiltsen badira, klima aldaketa saihestu beharrean, gaiztotzea baino ez da lortuko. Basoak ezinbestekoak baitira klima aldaketaren kontra, berotegi efektua eragiten duten gasak xurgatzeko ahalmena dute eta.



Arantza Iraola. Berria.info

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Arantzak?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Zer diozu gai honi buruz?
- Zer nolako energia sistema izango dugu etorkizunean: petrolio, gasa, eguzkia...?
- Gero eta energia gehiago behar omen dugu. Zer uste duzu?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Dietak

IDOIA ETXEBERRIA

Berria Egunkariko Kolaboratzailea

Ez zen mundua bukatu. Baina bukatzera balihoa bezalaxe ari gara. Zakua goraino betetzen. Langostinoak. Patea. Xanpaina. Kokotxak. Entrekota. Ardoa. Turroia. Polboroiak. Ginkasa. Urdaiazpikoa. Kroketak. Orujoa. Bonboiak. Gabonetan, gau txarrak ere ohikoak dira. Betekadarekin sofatik mugitu ezinik geratzea, alegia.

Eskerrak ez garela Japonian bizi! Ezingo genuke nahi beste jan. Izan ere, japoniarrak derrigortuta daude gerri buelta fina izatera. Gerria neurtzen diete, urtero. Lantokian. Gizentzen ari direnek hiru hilabeteko epea dute argaltzeko. Gizonezkoek 85 zentimetrokoa izan dezakete gehienez. Emakumeek 90. Lortzen ez badute, dieta egitera derrigortzen dituzte.

Inuzente eguneko broma dirudi. Gobernuak jarri zuen legea, herritarren osasuna zaintzeko. Langile gizenak dituzten lantegien jabeek zerga gehiago ordaindu behar dituzte. Horregatik, jabe horiek dira langileei presioa egiten dietenak. Enpresa handietan, opariak egiten hasi dira: bidaiak, etxetresnak... argaltzen direnentzat. Dietetika zentroak aberasten ari dira.

Hori bai, guri ere «itzulera operazio espresa» egitea proposatuko digute, urtarrilean. Sobran ditugun kiloak di-da kentzeko. «Bi astean eta modu arduratsuan». Batez ere hori, modu arduratsuan. Gero eta dieta azkar gehiago dauzkagu aukeran. Hamaika pilula magiko. Estatu Batuetan modan jarri den azkena: hamar egunez zunda edo hodi bidez elikatzea.

Berria

euskaragara.net

Gaia prestatzeko:

Zer dio Idoiak?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zer diozu gaiaz? Gero eta lodi gehiago dago? Zergatik? Zer neurri hartu beharko litzateke?

Zergatik? Beste ezer egin beharko litzateke?

(beste azterketariak esan duenez ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Elikadura zerga

Mikel Zurbanok

Jakina da, osasun publikoaren arazo larrienetakoa elikaduraren kalitate txarra da. Arazo hori da dagoeneko munduko gaixotasunen eta bizi-kalitatearen galeraren arrazoi nagusia. Gaur egungo elikadura-ereduak gero eta gehiago gaixotzen gaitu. Azken bi hamarkadetako dieta-aldaketa dago horren atzean; izan ere, egun jaten dugunetik ia hiru laurden janari prozesatuak dira. Euskal Herrian, mendebaldeko beste herri industrializatu bezala, azukre, koipe kaltegarri eta gatzaren gehiegizko kontsumoa dago. Arrazoiak ez da hainbeste norberak egiten duen hautua, elikaduraren industriaren izugarritzko boterea baizik. Izan ere, botere erraldoi horrek elikagaien ekoizpen eta kontsumo-sistema baldintzatzen du, eta erabaki politikoetan sarbide zuzena du. Elikagaien merkatuaren eragin sozial horri aurre egiteko, beste neurri batzuen artean, elikadurarako zerga-politika tresna egokia izan liteke. Elikadura osasuntsua saritzea eta kaltegarria zigortzea litzateke zerga-politika horren bidea, betiere, politika sozio-sanitario publiko eta berdinzalearekin koherentea dena eta errenta gutxiko populazioak elikagai osasuntsuak eskuragarri izateko helburua lehenetsita.

Argia

euskaragara.net

Gaia prestatzeko:

Zer dio Mikel Zurbanok?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zer deritzozu gai honi? Badakigu zein den janari prozesatuaren eragina? Hasi gara kontsumo ohiturak aldatzen? Zein elikadura-mota jarraitzen dute gure gazteek?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Elikagaien ibilbidea	
<p>89 milioi tona janari botatzen ditugu europarrok zaborretara urtean, hau da, gutako bakoitzak 179 kilo (kilo erdia egunero). Horietatik %42 etxeetatik iristen dira zabortegietara, %39 fabriketatik, %14 ostalaritzatik eta soilik %5 saltoki handietatik. Beraz, horren zabalduak dagoen ustearen aurka, geu gara elikagaiak arinkiaz erosi eta alferrik galtzen uzten ditugunak, eta ez multinazionalak. Europar Batasunak (EB) neurriak hartuko ditu 2025erako kopuru hori erdira murrizteko. Azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, soberakinak ez sortzea baizik. Elikagaien gehiegizko ekoizpenak eta ustiapen erraldoiek ingurumena izugarri kaltetzen dute.</p> <p>GARCIA, Mikel argia.com</p>	<p>Mundu osoan, jendea gero eta gehiago dago urrutiko elikagai iturrien menpe. 50 urtean elikagaien nazioarteko merkataritza hirukoiztu egin da, eta nazioarte mailan garraiatutako elikagaien kopurua, laukoiztu; populazioa, soilik, bikoiztu egin da, ordea. Estatu Batuetan elikagaiek 2.500 eta 4.000km artean egiten dituzte baserritik platerera iristeko, 1980an baino %25 gehiago; Erresuma Batuan, berriz, %50 gehiago.</p> <p>Distantzia luzeko elikagai sistemak aukera bikainak eskaintzen ditu, baina baditu alde txarrak ere; izan ere, tokian tokiko sukaldaritza, produktuak eta nekazaritza alde batera uzten ditu, petrolio kantitate itzelak gastatzen ditu eta ingurumenean eragiten du.</p> <p>HALWEIL, Brian www.bakeaz.org</p>

euskaragara.net

- Zer nabarmenduko zenuke Mikel Garciaren testuan?
- Nola jokatu beharko genuke horrenbeste janari alferrik ez galtzeko?
- Zerk eman dizu arreta Brian Halwelek dioen horretan?
- Leku desberdinetako elikagaiak mundu guztira iristea nola ikusten duzu, kontsumitzaile gisa? Zergatik?

(beste azterketariak esan duenez ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Emakumea eliza katolikoan	
<p>Eliza Katolikoaren erlijiosoen %61 emakumeek osatzen dute eta %39 gizonek, alegia, apaizek, apezpikuek, diakonoek... Bazterrean du Elizak emakumea, ahotsik eta bozkarik gabe, ardura-karguetatik urrun. Zerbitzatzen ari ote dira emakumeak: katekesi-lanetan, elizak garbitzen eta apaintzen, misio-taldeetan...?</p> <p>Jesusek emakumeak ulertu eta askatu egin zituen; baina Eliza Katolikoak diskriminatu egiten du emakumea.</p> <p style="text-align: right;">Argia, 2013ko otsaila.</p>	<p>Duela gutxi Ingalaterrako Eliza Anglikanoak bozketa egin zuen emakumeak gotzain izan daitezkeen ala ez erabakitzeko. Ezezkoa atera zen. Dena den, Ingalaterran emakumeak apaiz dira eta beste herrialde batzuetan gotzain ere bai. Eliza Katolikoan, aldiz, ez dute apaiz izateko aukerarik, eta hierarkiak emakumeekiko duen diskurtsoa kontuan izanda, apaiz izango diren eguna utopia baino ez da.</p> <p>Mota bateko Eliza hutsik geratzen ari da eta, bitartean, ebanjelioari hobeto erantzuten dioten bizimoldeak ari dira sortzen.</p> <p style="text-align: right;">Argia, 2013ko otsaila.</p>

- Zure ustez, ohitura kontuak baino ez dira, ala Eliza Katolikoak emakumea benetan diskriminatzen du? Eta Islamak? Zeinek baztertzen du gehien, Islamak edo Eliza Katolikoak?
- Eliza Katolikoan gizartean baino diskriminatuago dago emakumea?
- Zer erabaki hartu beharko lituzke Eliza Katolikoak?
- Emakumeak Eliza Katolikoan agintea izatea utopia dela dio bigarren aipamenak. Ados al zaude?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

ERRELEBO KONTRATUA	
<p>Zer da errelebo-kontratua? Enplegu-bulegoan langabetu gisa izena emandako langile batekin egiten den kontratu mota bat da. Kontratu hori egiteko, honelako egoerak gertatu behar du ezinbestez: enpresako langile batek, erretiro partziala eskuratu duelako, lanaldiaren zati bat egingo du eta jasoko duen soldata ere haren araberakoa izango da. Langile horrek utzitako hutsunea betetzeko, berriz, lanaldi partzialeko kontratua egingo zaio langile berriari.</p> <p>Erretiroari buruzko araudiak zehazten duenez, erretiro-adinera heldu baino lau urte lehenagoko epean egin ahal izango da kontratu mota hau.</p> <p><www.bilbaodigital.es>. Egokitua</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako 2.100 langilek erretiro partziala hartzeko aukera izango dute 2019. urtera arte, gobernua sindikatuarekin egindako akordioari esker. Errelebo-kontratuaren formulari jarraikiz, 61 urte betetzen dituzten lan-legepeko langileek erretiroa hartu ahal izango dute eta haien lekua beste langile batzuek beteko dute. Horrela, Administrazioaren lantaldearen batez besteko adina gaztetu egingo da.</p> <p>Arlo publikoko sailburuordeak azaldu bezala, erretiro partziala hartzen dutenek lanaldia % 25-75 murriztu ahal izango dute.</p> <p>MARTIN, X. Berria, 2013ko apirila. Egokitua</p>

euskaragara.net

- Zer deritzozu errelebo-kontratuari? Horrela sustatzen da gazteentzako lana?
- Zer onura ekar diezaike neurriak langileei eta enpresei?
- Administrazioaren langileria gaztetzeko bidea izan daiteke?
- Egokiak eta nahikoak iruditzen zaizkizu betebeharreko baldintzak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Eskola txikiak

Nagore Iñurrategi

Gurasoa eta Irakasle Eskolako irakaslea

Eskola txikien berezitasuna da adin guztietakoek batera ikasten dutela, adinaren arabera sailkapenik egin gabe. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurrak soilik banatzen dituzte.

Eskola txikiak ematen du aukera handiena hezkuntza ahalik eta naturalena jasotzeko. Ume batek heldu batengandik baino errazago ikasten du beste ume batengandik. Umeak haien artean gertuago daude. Hurbiltasun horrek irakaspenak hobeto barneratzeko bidea ematen die. Txikitxoek handiagoengandik ikasten dute, gertu dituztelako eta zer egiten ari diren ikusten dutelako. Aldi berean, zaharrenek ere asko ikasten dute txikiengandik, ikasi duten hori azaltzeko, gaia ondo menperatu behar dutelako.

Adin aniztasuna oso aberasgarria da pedagogia aldetik. Anai-arreben arteko ikasketa da. Edukiak ikasteaz gain, bizitzeko modua ere ikasten dute. Bizitzan era naturalean egiten dena da, bizitza ez dago antolatuta adinaren arabera geletan. Adin guztietako jendea elkarrekin mugitzen gara.

Berria

euskaragara.net

Gaia prestatzeko:

Zer dio Nagore Iñurrategik?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zure ustez, zein da eskola txikien betebeharra? Zergatik?

Zeintzuk dira eskola txikien alde onak eta alde txarrak? Arrazoitu zure iritzia.

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

euskaragara.net

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK: HOBE NEURRIAN	
<p>Eskolatik atera eta hor ikusten ditugu haurrak atzera eta aurrera, presaka, ogitartekoa esku hartuta, pianoa, karatea, esku-pilota, ingelesa, informatika... ikastera. Egungo umeek ekintza ugari egiten dute. Garbi dago eskolaz kanpoko ekintzen aukera zabala dela, zabalegia, agian.</p> <p>Ikasi, ikasiko dute, baina, beraientzat ona al da ia jolasteko astirik gabe gelditzea? Gehiegi estutzen al ditugu etorkizunerako prestatzeko aitzakiarekin? Horrelakoetan gehiegi ibiltzeak arazoak ekar litzake eskolako errendimenduan?</p> <p>Zenbat ordu, zenbat ekintza... zein da egokiena?</p> <p>www.euskaraz.net. Iritzi-Miritziak. Egokitua</p>	<p>Adituen arabera, eskolaz kanpoko ekintzak onak dira, baldin eta umearen garapen pertsonalean laguntzen badute. Baina, gainera, ekintzok gustagarri izan behar dira umearentzat. Funtsezkoa da umea gustura egotea aukeratutakoarekin.</p> <p>Aukeratutakoak aukeratuta, ez dira astean bi egunetan baino gehiagotan egin behar. Eskolaz kanpoko ekintzek ez diote umeari gainezka egin behar, estres emozionala eragin diezaiokete eta. Egokiena denbora ondo banatzea da, gustatzen zaizkien eskolaz kanpoko jarduerak egiteaz gain, denbora izan dezan eskolako lanak egiteko, jolasteko, familiarekin egoteko...</p> <p>www.bergara.net. Gurasoen galderak</p>

- Ados al zaude *euskaraz.net* web-gunean esandakoarekin? euskaragara.net
- Zer nabarmenduko zenuke *bergara.net* web-gunean esandakotik?
- Zure ustez, zein izango litzateke eskolaz kanpoko aisialdia erabiltzeko modurik onena. Zergatik?
- Zer ondorio izan litzake haurrak jolasteko astirik gabe ibiltzeak?

(beste azterketariak esan duenez ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. **Gaia** garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Eskuko telefonoak. Telefono adimentsuak.

Iruri Knorr

Ideateca.com webguneko marketin burua

Azken bost edo sei urteetan, merkatuak eztanda egin du, eta ikaragarria izan da bilakaera. Beste sektore batzuetan ez bezala, kontsumitzaileak zein erabiltzaileak oso azkar moldatzen dira ezaugarri berrietara; egunero erabiltzen duten zerbait baita.

Agertutako teknologia berri bakoitza iraultza txiki bat izan da, eta erabiltzaileengan behar berriak sortu dituzte. Hala ere, teknologia berri horien guztien artean, Internet izan da aldaketa gehien eragin dituen. Berehala hasi ziren gazteak mezu laburrak bidaltzen eta argazkiak partekatzen. Whatsapp erabiltzen da orain. Gizakiok komunikatu egin behar dugu, eta komunikazioa errazten duen edozerk arrakasta lortzen du.

Internetek eta sare sozialek gizartearen komunikazioaren abiadura azkartu dute. Ez dugu pazientziarik, eta edozein galderari erantzuna berehala aurkitzera ohitu gara, sakelako telefonoen bidez; informazioa uneoro jaso eta bidaltzera. Gure familia, lagunak, lana, banketxea poltsikoan izan nahi ditugu. Ezin gara etxera heldu arte zain egon.

Berria

euskaragara.net

Gaia prestatzeko:

- Zer dio elkarrizketatuak?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Eskuko telefonoek komunikazio-ohiturak aldatu dituzte
- Zein dira arrazoiak? Zein dira ondorioak? Eta irtenbideak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

C1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia garatu (5 minutu)
2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa** (5 minutu azterketari bakoitzak)

Guztira 10 bat minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Etxeko lanen balioa



Lansari bat ez duen zeregina lana al da? XXI. mendean baietz esango genuke. Haurtxo baten zaintza, agure bati arreta ematea, umeari ikasketetan laguntzea, etxea garbitzea... Horiek guztienak egiten dituenak ez du eurorik jasotzen. Baina, egun batean horiek egiteari utziko balio, izugarriko kolapso sozial baten aurrean geundeke, etxeko lanak gure bizimodua aurrera ateratzeko ezinbestekoak baitira.

Etxeko lana balioan jartzeko proposamen ugari egon dira, esaterako, estatuak soldata bat emateko eskaera. Argi dago etxeko lanen balioa dirutan kalkulatu balitz, herrialdeen ekonomia guztiz eraldatuko litzatekeela.

Beha.es

euskaragara.net



Kapitalismoak etxeko lanak maitasun-ekintzat hartzen ditu, emakumeak horietara lotzeko, jardura horien lan-kargari ez erreparatzeko eta, oro har, lan hori behar bezala kontuan ez hartzeko.

Soldataren aldeko borroka gaur egungo ikuspegitik ez litzaiguke oso estrategia egokia irudituko, nahiz eta ikusgarritasuna lortzeko bide egokia izan litekeen. Gainera, lan horiek enplegu bihurtu diren kasuetan (etxeko langileen kasuetan) oso era prekarioan egin ohi dira eta gehienetan emakumeen kargu daude. Ez al da egokia soldatarik gabeko lan horiek baloratzeko beste bide batzuk bilatzea?

irakurleeskolafeminista.wordpress.com

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Arregik?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Etxeko zereginetan aritzea lantzat ala maitasun-ekintzat hartu behar dugu? Zergatik?
- Zer deritzozu etxeko lanen truke soldata jasotzeari? Nork ordaindu beharko luke?
- Zer gertatuko litzateke egun batean egiteari utziko baliote? Kolapsoa?
- Beste modu batean baloratzeko litzateke egokiena? Nola?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)